



Azpeitiko Udala

ALKATETZAK 2018KO ABENDUAREN 10EAN EMANDAKO EBAZPENA. HONEN BITARTEZ, AZPEITIKO UDALERRIAN ERREGIMEN BEREZIKO 33 ETXEBIZITZA TASATUAK ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN ZERRENDAK ARGITARATZEN DIRA.

AURREKARIAK

Udal Batzarrak, 2018ko maiatzak 15ean egindako bilkuran Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokion AU4 “Arana Ingurunea” gune urbanistikoan, 4.3 Esklabak-Iturzulo azpieremuan, -1. Fasea- eraikiko diren erregimen bereziko 33 etxebizitza tasatu eta heuren gehigarriak esleitzeko oinarriak onartu zituen. Deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2018ko ekainaren 1ean eta 2018ko uztailaren 20an.

Oinarrien laugarren atalean **2018ko uztailaren 13ko** data zehaztu zen, indarrean dagoen araudian aurreikusitako eskakizunak betetzen zituzten pertsonak edo bizikidetza-unitateak, esleipen prozedura horretan parte-hartzea eskatzeko.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarrizko baldintzak bete direla egiaztatatu ondoren, onartuak eta baztertuak izan direnen behin behineko zerrendak osatu dira kupotan banatuta (orokorra eta etxebizitza egokituak), eta, kasuan kasu, baztertzeko arrazoiak zein izan diren adierazita.

Zerrenda horiek Azpeitiko udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian www.azpeitia.eus erakutsiko dira, hamar egun baliodunetan, eta denbora honetan baztertuak izan direnek erreklamazioa jartzeko aukera izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa edo justifikatua izan. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan, adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera.

Eta eskumenari dagokionez, Toki Administrazioaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21. artikulua dioena ikusita (apirilaren 2ko 7/1985 Legea), Alkatetza honek ERABAKI DU:

1.- Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) “Arana Ingurunea” HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 1. fasean eraikitzeak diren erregimen bereziko 33 etxebizitza tasatuak esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak argitaratzea; zerrenda horiek Ebazpen honen 1. eta 2. eranskinetan jasotzen dira hurrenez hurren.

2.- Prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak hamar laneguneko epean jarriko dira jendaurrean erakusgai Azpeitiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian www.azpeitia.eus. Baztertuak izan direnek denbora honetan erreklamazioa jartzeko aukera izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa edo justifikatua izan. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan,

adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera.

Ebazpen hau tramitekoa da, eta ez du administrazio-bidea amaitzen.

Azpeitian, 2018ko abenduaren 10ean.- Alkateak.- Eneko Etxeberria Bereziartua.

